dena
ikhusten.
eta Izarraitz
Anboto,
, berke
lur eta ber-
begira
baitute

: Urturu
be, Biz-
mbat ge-
burutzo
lore-antzi

-tika-tatketa
aldapa
batzuen
batzu gure
, asko bar-

# Aizkorri kaskotik

Aizkorriko bizkarretik ikhusten dena ez da berze nihundik gure Eskual-Herrian ikhusten.

Mendiak, mendi-anaiak lehenik: Ernio eta Izarraitz, Aralar eta Gorbea, Arno eta Atchu, Oiz eta Anboto, Mendoegi, Etchalar, Oiluz eta bertze asko, berze nihundik ikhusten ohi ez diren bezala lur eta herrien gainetik beren buruak ~~altchatuz~~ luzatuz elgarri begira hala nola hiri handi bateko eliza-dorreek baitute elgarri begiratzen.

Gero, zuhaitzez betherikako oihan ~~handiak~~ zabalak: Urturre, Otsabio, San Adrian, Elgea, Zaraia, Sollube, Bizkargi, Andia Belate eta nik ez dakit zombat gehiago, denak osto berriz jauntziak, zeruari buruz dohazila, Jaun goikiari ~~othoitzetan-han~~ eskaini ezarri lore-zentzi eder batzuen iduriko.

Hurbil-hurbila, phentze eta sorho ibiliak zathika-zathika aldapa eta ibarretan hedatuak dauden oihal lodi batzuen itchuran eta, zola-zolan eskual herri ezagutuak, batzu gure oinetan, bertzeak Kantauri-itsas bazterrean, asko bar-

na berretan, denak kochkor eta chehe, handienak berak ttar eta ttipi, gizonen kafurak elgarri josiak zauzkatela beren kaputcha gorri-gorrickin, zeru ~~osoa~~ gainara zabalak eta urdinak ikhusteaerekin lotsaturik dauzkala iduri; ibai eta erreka garbiak nun nahi, mendi gainetik hirietarat igorrikako dohainak, oihanpean egasian eta ibarretan ~~zilhar~~ zeihar dirdira, miraila bezien iduria dabiltzala. Bideak asko aldetan gizonek indarraren indarrez hiri batetik berzerat ~~egon~~ zabaldu bideak, hor gorda eta hemen ageri, han makhur eta ardurago chuchen, bethi hertsi-hertsiak, bethi zuri-zuriak norbeitek hastaritik hari luzea balaria.

Azkenekotz, gizonaren jakitatea eta ahala erakutsiz duela, ~~burdin~~ suge beltza bere burdin bideetan lasterka dohala, hichtuka, azantz handika, khe ezea lodi zikhin bat kaskotik deramala.

Guk ikhusi ginuen treinak ondotik zarion khea ittant bat egon zen gora gora ~~egon~~ eta ikhusi ginuen ~~zaba~~ zabaltzen, arintzen, hausten eta ikaltzen gizonek handienen izen eta aiphua laster ikaltzen den bezala.

Egiaz Aizkorri gainetik begiratu eta, behereko gauza guziek haur jostagailu iduri dute.

# Hergaraï

Nola utẓi Hergarai hitẓ bat erran gabe,
Ahatsa, Lekumberri eta ẓu Mendibe?
Hor biẓịtẓea baino othe da deus hobe?

. . .

Dusunaritẓe eta gero Sarrasketa
Zuen paretañoek oi ẓer mahasketa!
Damurik dik arnoak berotẓen kasketa!

. . .

Buẓtintẓe-Iriberri heiekilan Jatsu
Nolaẓ eẓ othe dira biẓiren dohatsu?
San Frantsesen besoa han da han indartsu

(2)



(2)

# Azken agurra! Ibarnegarairi

Gizon bat galdu dugu Eskual-Herrian. Eta,-
... ez da Eskual-Herria bera ere, gizonez hain
... -tzke Ybarnegaray

...zen eiki ustega.
...ek "gizon eijer-
...tzaz eta adimen-
...bihotzaz bero, nun
...r jauna? Oraiko
...keen bezala onhartzen
..., baziotenn aiherkun-
(gogur gaimerat emanik)
...rik, nun ez baitzá-
...skoren begietan, ez
...zen.

...zin eta Talendu; o-
...takoek berek ez
...khatiea baita.
...hainak eta Talen-
...naren zerbitzuko?
...suna erakutsi?
...itu zelarik 1914-ean,
... gerla-tokietarik
...r hortarik ari! su-
...ekoekin; eta aitzin-
...k goraki diote,

# Azken agurra! 

Ibarnegaray

Gizon bat galdu dugu Eskual-Herrian. Eta, – dakigula, – ez da Eskual-Herria, bera ere, gizonez hain aberats nun hotz eta mutu baigaudezke Ybarnegaray baten joaiteari.

Nehor gizon izaitekotz, "gizona" zen eiki ustegabetarik zendu zaukuna, Chuberotarrek "gizon eijerra" erraiten dioten heietarik. Gorphutzez eta adimendez berdin lerden, ahoz suhar eta bihotzez bero, nun ez zen ezagutzea eta aiphatzea Ybar jauna? Oraiko gazteek ez zuten mentsuraz, merezi zukeen bezala onhartzen. Alaina, azken hamar bat urthe hootan, bazioten aiherkundez, haimbertze lanho ondorat bildurik, gezur gainerat emanik nun ez baitzakiten gizonaren preziatzen. Gure eta askoren begietan, ez du zorigaitzak* gizona handitu baizen.

. . .

Ybarnegaray-ek bazuela dohain eta talendu: orok aithortuko daukutena da. Kontrakoek berek ez dute hori behinere ukhatu, ezin ukhatua baita.

Ukhatuko othe dute zituen dohainak eta talenduak, ezarri dituela bethi leialtasunaren zerbitzuko?

Nola ez du Frantziari bere leialtasuna erakutsi! Deputatu berri zen oraino, gerla phiztu zelarik 1914-ean. Bere deputatugoak eskua egiten zion gerla-tokietarik urrun egoiteko. Bainan ez zen Ybar hortarik ari: suarat joaitea galdatu zuen bere adinekoekin; eta aitzindarietarik ukhan zituen aiphamenek goraki diote,

ez zeta soldado uzkur eta herabe izan.

Zombatek ez dute, bihotzaren choko-chokan, Ybarnegaray-i ezagutza handiena atchiki 1917-an, ekhainaren 29-ko bere mintzaldiaz? Gerlako athekarik hertsiena eta hitsena bide 1917-ko aphirila! Gaizki muntatu oldar batean, ~~emechimendu~~ osoak izan ziren erhautsiak; oldarraren gunea ere gaichtoenetarik hautatua zuten. Eta, bizkitartean, aitzindari-nausiak, thema tzar batez hartuak, nahi zuten oldarra, toki berean, molde berean, erreberritu. Lotinent gazte batek behar zuen kopeta, Nivelle, Mangin, Micheler eta holako jeneral famatu batzueri buru egiteko! Zombat mila gizon ez ditu, egun hartan, Ybarnegaray-ek bere mintzaldiaz salbatu?

* * *

Bi gerlen artean, gure deputatuak erakutsiko du bere sinhesteari zuen atchikimendua.

Framazonek nahi ukhan zituztelarik gerlarat sarthu fraideak Herritik berriz haizatu, Ybarnegaray chutitu zen, lagun zombeitekin, fraideen alde. Hiriz-hiri, herriz-herri, adi-arazi zuen bere oihua: « Ez! ez "dugu onhartuko Herriarentzat izerdia eta odola eman "dutenek, ukhan dezaten Herritik kampoa! » Hemen berean mintzatu zen - paregabeki, zakien bezala, - bai Baionan, bai Maulen, bai Ortesen ..... Eta fraideak Herrian gelditu zauzkigun.

Erranen duteа bada atchikimendu hori achaletikakoa zuela? Azken orenetan, garbiki erakutsi du, zer sinheste azkarreko gizona zen. Tertarat zohan

ikhusi duen bezain laster, jarri da herioari bekhoz-bekho, ohidura galdatu du eta, berak, aphezaren orhoitzeri ihardetsi. Gero, Eskualdun zaharrek egiten ohi dutena: lañoki adi-arazi ditu bere nahiak eta azken aholkuak.

. . .

Ybarnegaray zenari batzuek kausitzen zioten eskualdungo eskas bat...... Eskualdunenetan eskualdunenetarik izan ez balitz bezala!

Badakigu ~~ez zituela~~ Eskualdun batzuen aburu-ametsak ez zituela onhartzen; ez Eskual-Herria heiek baino gutiago maite zuelakotz, bai ordea Eskual-Herriaren ona bertze begiz ikhusten zuelakotz. Behako zorrotza baitzuen eta segurra, ohartua zen Herri baten maithatzeko bi molde badirela: bata lañoa eta ~~[illegible]~~ sendoa, ~~[illegible]~~, bestea kechua eta eria. Eta zaukan, arrazoinekin, sukharra ez dela sekulan izan osagarriaren ageri.

Dena dela, trakaz bezala bihotzez, eskualduna zen eta eskualdun ohidureri errotik atchikia. Pilotaren alde lan handia erabili du; eta ahulduz zohan jokoa, arraphiztu. Bai segur, iragan asteko "Herria"-k ziona: "herritar handi bat itzali zaiku"!

Eta Eskual-Herriak ez du behin galtzekoa Ybarnegaray-ek eman dion distira.... ez eta Eskualdunek holako gizonaren orhoitzapena.

S. A.

# "Batasuna"

Bere "Orhoitzapen"-en bigarren zathia argitaratu
berri dauku de Gaulle jeneralak; eta liburuari "Batasu-
na" eman dio izena. Urthe bat eta erdi bazuen lehen za-
...
...n. Huntan kondatzen
...iak; hartan, 1942-tik
...raintzaren dembora;
... 1946-a arthate. Ez
...tkarea" eman behar-



... dugu badakiela
...lerki eta badaki
...nhilari bee emaiten
...e dira... eta ustez

... en hirugarren zath
...-harko "Samurgoa";
...ren zathia "Batasuna"
... horrek ez zuen luzez
...altaz
...t heldu bazen ere,
... Erran ditzak bata.
...lemanaren herra,
...khei-mota ez zuen
...elakotz Herrian jarria
...elako asmuak zapha-
...oldartzea zelakotz

# "Batasuna"

Bere "Orhoitzapen"-en bigarren zathia argitaratu berri dauku de Gaulle jeneralak; eta liburuari "Batasuna" eman dio izena. Urthe bat eta erdi bazuen lehen zathiak agertua zela, "Deia" izenarekin. Huntan kondatzen zituen 1940-tik 1942-rainoko gerthakariak; hartan, 1942-tik 1944-erainokoak. 1940-1944 arte hori eraintzaren dembora! Noiz kondatuko derauzku 1944-tik 1946-a gerthatu. Ez ducia liburuari izen-goitiitzat "Bereckherea" eman beharko: eraintzaren uzta alaina!

. . .

Gure gizonak, aithortu behar dugu badakiela khondatzen! Erdara kudeatzen du ederki eta badaki ~~ortolgiaren bere garat biltzen~~ bere ophilari bere emaiten. Zorigaitzez! gerthakariak gerthakari dira... eta uztak du eraintza salhatzen.

Lotsa bat badut bere "Orhoitzapen"-en hirugarren zathiari ez othe dion izen goitia eman beharko "Samurgoa". Alaina, bere "Orhoitzapen"-en bigarren zathia "Batasuna" deithu ahal izan badu ere, batasun horrek ez zuen luzez iraun behar .... eta de Gaulle-n faltaz

Alaina ainhitzen elgarretaratzeaat heldu bazen ere, batasunak ez zituen erroak barna. Erran ditak batasunak herra zuela bere zimenta Alemanaren herra. Bainan herra horrek berak zombat ekhei-mota ez zuen bazuek Alemana hastio zuten arrotza zelakotz Herrian jarria; bertzeek hastio zuten "democratiques" direlako asmoak zaphaturik zauzkalakotz, bertzeek Rusiari oldartua zelakotz

. . .

Ez dea preseski hori de Gaulle-k lau urthez Frantzian egin duen lana?

Fede onez egin duela? nahi dut! Chede hoberenetan egin duela? baditake! Zorigaitzez, ez da deus hain bihotz onez eginik, nola baita fede onez egina, dena hain fede onez egina nola baita chede hoberenetan egina!

* * *

Alaina, de Gaulle-k bere deia adi-arazi zuelarik bazen batasun bat: Petain Marechalaren inguruan Frantses gehienen batasuna!

1940-eko ~~[illegible]~~ goiti-beheitiz mintzatu diren guzien aithormena dugu: "Nul ou presque nul ne discute la légalité du nouveau régime". De Gaulle bera ere urrenguru da lagun guti duela. Berehala oldartzen da batasun horri. Londres-etik behin eta gero Brazzaville-tik egiten ditucn solas aldietan batasun hortarik nor nun duen berechiko ari da thematua, garratoia gasna puska bati bezala.

UZTAK SALHATZEN ERAINTZA.

Bere "Orhoitzapen"-en bigarren zathia ekhein huntan argitaratua du de Gaulle jeneralak;bazuen hemezortzi hilabete ager-arazia zuela lehena.I940-I942 arte hortako gerthakariak khondatuak zauzkun huntaz cheheki;hartan eman dauzku I942-tik I944-erainoko goiti-beheitiak garbiki.Zathi horietarik bata deithua zuen "DEIA";bertzea deithu du "BATASUNA".

Alaina,bere "deia" entzun-arazi zuelarik,Frantses guzien "bat"-ez egitea uste eta nahi zuen de Gaulle-k.Bainan ez da dudarik "batasuna" amesten zuela......bere itzalpean.

+ = = + = = +

Nolaz bada hain thematuki "batasuna" lau urthez erain ondoan,dugu "berechkeria" eta elgar ezin entzuna altchatu Frantzian? Beldur bat badut,eiki,de Gaulle-k bere "Orhoitzapen"-en hirugarren zathi bat emaiten badauku,zathi hori beharko duela deithu....."BERECHKERIA" .

Elgar ezin entzuna jada gauza ageria eta segurra ginuen Frantzian,de Gaulle jeneralak kargua utzi zuelarik I946-an.Geroztik ere ez gira segur eritasun hortarik sendatu.Egiaz,I940-I944 arte hortan,zombat berech-bide ez daukute gerthakariek ekharri?zer liphista haziak ez dituzte bihotzetan erein?Alemana ere ez ginuena hemen bide horien oraino zabaltzeko?hazi horien oraino akhulatzeko?

Horiek guziak hala dire.Bainan aithortzeko dugu,arte hortan guzian,de Gaulle suari buhaka,gogoen sumintzeari ari-izan dela.

= + + = + + =

Haste hartan "batasuna" bere itzalpean egitekotz,de Gaullek behar zuen ordu arte numbeit han "bat" zena berechi.Berak erraiten daukuna da,eiki,I940-an nehor guti zuela berekin,kasik bakharrik zela Londresen kausitu.

Eta jendea bere ganat bildu beharrez ari direnei guzieri gerthatzen ohi zaiotena,gerthatu ere zaio gure jeneralari:lerratu da jendearen lausengatzeari,populuaren titulikatzeari.Gu I940-an ginen herstura bertsuan Erromanoak gerthatu dire behin baino gehiagotan.Diote behin,nahiz-eta bere herritarrak iratzar-arazi eta sustatu,aitzindari bat lothu zeiela zer nahi erranka.Bainan herritarrek bihurtu zioten: "Jarraik gitzaitzun nahi baduzu,erraguzu gostuko zerbait."

Eta egia nehor gutiren gostukoa baita,de Gaulle-k eman zuen gezurretik.Irakurtu berri ditut bai Londresetik bai Brazzaville-tik egiten ohi zituen solas-aldietarik zombeit;ez da harritzeko Frantsesek kausitzen baitzioten Vichy-tik entzuten zituzteneri baino gostu hobea.Bainan zoin diren utsalak....utsalak baino gehiago gogo bereko ez ziren Frantsesentzat ozpin.

+ = + = +

De Gaulle-n hutsa izan da:ez baitu onhartu Herria maitha zitakeela,harek maite zuen bertzela;uste ukhan baitu Herria zerbitza ezin zaitekela,harek zerbitzatu nahi zuen bertzela.Hortarik sorthu zaio bihotzean haren gogoko ez ziren guzientzat hisia bat gaitza.

Hisia horrek du gizona askotan itsutu.Bere sinhestea ezarri du merezi ez zuten gizonetan;laguntzat hartu ditu Herriaz baino beren asmuez biziki kechuago ziren gizonak;Muthur egon da talendu handiko gizoneri.Ezin ahantzia dugu ,de Gaulle-k deraukula Thorez bat Rusiatik bidali;de Gaulle-k duela Giraud bat baztertu.

Hisia hori utzi duelakotz amodioa baino gorago mintzatzerat,ez da ondoko mendeentzat de Gaulle izanen "batasuna" jarri duen gizona, bai ordea Frantsesak bertze nehork ez bezala berechi dituena.

EZTENA

# Bethiko lauroak!



...tuenak; ez eta · ere
...ik daukatenak!
...rthakari kotakoa!
...ina gerthakari aphur-
...gizon ez zen gizon ba-
...tzagaite ederragorik:

# Bethiko lausoak!

Ez dira izar handienak argitsuenak; ez eta ere gerthakari larrienak erakaspen gehienik daukatenak!
Gogoan dudalan gerthakaria, ez da gerthakari kolakoa! mintzaldi bat, alaina, solas-aldi bat baina gerthakari aphur-ragorik othe da hambat. Mintzazailea gizon ez zen gizon bez-tez harrotzaile hezietarik; bada ere mintzazaile ederragorik: biga · bortz

1

Bethiko lagun ñabarrak.

Ez dira izar handienak argitsuenak; ez-eta ~~ere~~ gerthakari larrienak erakaspen gutienik daukatenak!

Gogoan ditudan gerthakariak, ez dira, segur, gerthakari ketakoak. Zer da ~~gauz~~ mintzaldi bat baino aphurrago, solas-aldi bat baino ez-deusago? menturaz bi mintzaldi, bi solas-aldi! Iragan aste hortan ukhan ditugu bi mintzaldi, bi solas-aldi: bata Baionan eta bertzea Bokalen; bata ala bertzea aphezek emanak. Bata Afrikako ~~[illegible]~~ misionesten arrenguraz; bertzea nik ez dakit zertaz: lehena katoliko multcho batek muntatua; bigarrena komunichtez bazkatua!

Hots! gerthakari ttipiak eta,-iduriz bederen,-gibel-ondo gutikoak. Nun zoin izan den mintzaldirik ederrena, ez dakit: Baionakoa dut bakharrik entzuen; Bokalekorat ez niz izan. Baionakoan kausitu niz, baitakit Aita Larregain misionest ohoragarri eta Eskualdun zintzoa dela; Bokalekorat ez niz menturatu, baitakit Boullier aphezak bere fedeari ukho egina duela eta bere buruzagiez ukhatua dela.

* * *

Horrek berak ez othe gaitu argitzen giristino-zentzuak ~~nor norat~~ norat behar zuen erakharri, noiz nori alde behar zuen jarri? Eta horra zertako, daukadan biz mintzaldi horien kariatarat gerthatu direnak

Astronomoek diote ez direla izar handienak izar argituenak. Gerthakari aphur eta ez-deus batzuk zer erakasgarria ez daukute emaiten, menturaz gerthakari handiagoek ez dutena hain garbi emaiten.

Hitz horiek aiphatzean, gogoan ditut aste berean ukhan ditugun bi solas-aldi eta solas horiek ukhan dituzten aintzin eta gibel-kargak. Bata ala bertzea aphez batzuez emanak ziren: lehena Baionan, bigarrena Bokalen; Baionakoa Aita Larregain Aita-churiak Afrika hortako harat hunatez, Bokalekoa, Boullier Pariztar aphez gebentzaz.

. . .

Bi solas-aldi horietarik, zoinek othe ditu solas-minkorrenak erran-arazi? zoinek kotatiko zombeit mintzaira ezarri? Misionestarenak? Bere aitzindariek joa denak? Komunismaz begiak zabaldu nahiz ari denak? Ala komunismo alde denak? Hain seguer ez zuek uste duzuenak?

Alaina, zombeitek ahalak ere egin dituzte Aita Larregain-en mintz-aldiaren trabatzeko: ichilka, ahapetik hedatua zuten mintzazaikari bazirela oldartuko zirenak; erran zuten nahaskeriak izanen zirela. Berria hedatua ere zuten aphez-pikutegian ez zutela baimenik eman. Hots! azpiz jokatuak ziren lan hortan arras trebe diren batzu.

Aithortu behar dugu aukerretan ari-izan direla .... aukerretan edo, biltzarraren ondotan, holakoetan, arduura bihurtzen lanzkatzen baita. Jendetzea bazen Aita Larregainen entzuteko bildua.

. . .

Aintzin karga eman ondoan, mintzaldiak ukhan du ere gibel-karga. Ttipikeria bakhar bat bezin hats egina dun

# Bainan norekin?

Antolamendu-keta Algeria hortan ibili nahi luketener, Mollet zozialistak ihardetsi deic: « Antolamendu-keta ibil!... bainan norekin? »

Alabaina antolatzeko behar dira biga.... nun ez den batek osoki amor emaiten! Eta gauzak barna zilhatuz nahasiekin antolatu behar girela diotenek, funtserat-eta, ez dute bertze chederik: "amor emaitea", nahiz hitzak min egiten diotelakotz!

. . .

(5) 

# Errenarten balentriak

(5)

=

an, gure Eskual-Her-

estalia zen; eta, oi-
ltzoka. Artzainek
inbestetaraino bait-
sartak. Zakurrek
heietarik ere asko
egiz beren buruak
zaharregiz ezindu-
iorik ere ez zuten

la: mundu huntan
dagoilua. Ordu har-
no ere arrenguraga
Abiletan abilenak iza-
agaizoek bizizeko:
t edo beste, oilar kas-
ndarkinak: gauza
koak.
tearekin, eskual-
taitziren

Atheka hits hortan Eskualdunen buruzagiari gogoratu zitzaion, behar zuela hautsi-mautsi bat, Erre-

# Errenarten balentriak

## Aintzin-solasa

Otsoz leherra omen zen, orduan, gure Eskual-Herri huntan.

Choko hau guzia, alaina, oihanez estalia zen; eta, oihan horietan, otsoak bizi ziren multzoka. Artzainek burutziarik ez zezaketen egin haimbestetaraino baitziren ihizi horiek ozarrak eta ausartak. Zakurrek ahal zutena egiten zuten; bainan heietarik ere asko otsoek garbitzen zituzten, edo gazteegiz beren buruak ezin zainduak zituztelakotz, edo zaharregiz ezindueheak zirelakotz. Hainitzek kalapiorik ere ez zuten otsoeri buru egiteko.

Bainan bethidanikako errana da: mundu huntan gaitzaren ondo-ondoan dagola sendagailua. Ordu hartan, otsoen ausartziaz gizonak baino ere arrenguragoziren Eskual-Herriko azeriak. Abiletan abilenak izana-gatik, deus guti zuten eiki gizagaizoek bizitzeko: oilo etika zombeit, bildotch eri bat edo beste, oilar kaskaildu zahar batzu: hots! otsoen ondarkinak... gauza guti eta, denak ere, gosturik gabekoak.

Ez da harritzeko, holako haz-bidearekin, eskual-azeriak hezur eta larru eginak baitziren

* * *

Atheka hits hortan Eskualdunen buruzagiari gogoratu zitzaion, behar zuela hautsi-mautsi bat, Erre-

nart, azerien erregearekin egin.

Debruarekin solasari lotzen denak, chiphil-usain on baten biltzeko hirriskua badu. Nehork bezein untsa bazakien egia hori Eskualdunen buruzagiak; eta ez zen beldurrik gabe gizonari ere azeriak, - ahal zukeen guziez, - bere ahamena eremanen zioela. Beharrak, ordea, ez baitu legerik!

Geroztik ere, biga-bostetan gerthatua da: etsai handiagoaren urruntzeko etsai ttipiagoari esku-emaitea. Bakarrik, - zuhurra badu -, hola jokatzen denak erna-ta biphil egoiteko duke, etsaiari bezala, lagunari ....... etsaiari baino gehiago lagunari.

Eta horra nola gerla phiztu zen Errenart, azerien erregearen eta Ichangrin, otsoen aitzindariaren artean ..... ordutik omen baititugu otsoak Eskual-Herritik itzaliak.

## I.- Azeriaren eta Otsoaren sortzea.

Altaa Errenart eta Ichangrin ahaide-hurren ziren ...... ez, nahi baduzue, anaie; bainan segur kusi. Huna ziki nola mundurat agertu ziren, bata ala bestea, liburu zahar-zahar baten arabera

Lurreko Parabisoütik kampoa ukhan zutencko, buluz-gorri zirela ohartu ziren Adam eta Eba. Eta, lehen aldikotz, senditu zuten bihotzean ahalgearen zimikoa, gorphutzean hotzaren ausikia.

Izpirituz erneago izanki-eta, Ebak berehala hauteman zuen zer gibel-ondo izigarriak zituzkeen lehen

bekatuak. Bapatean urthu zitzaion gogoa; hipaka hasi zen nigarrez. Adam gaizoa, aldiz, hari so, harritua, ha[...] zagon, besoak dilindan, begiak zabal. Eta ophil bat gaitza usmatu zuen bihotzaren gainerat jeusten zaiola[...] Berak ere ikusi zuen, azkenean, zozokeria bat pikorra eginik zaudela.

Bizkitartean, heien dolu-mina ikusirik, urrikaldu zitzaioten Jainkoa. Adami agertu zaion Ebaren ichilik eta zaharo bat eman, erranez: „Hotzez edo gosez "zauzketelarik, hunekin joko duzu itsasoa. Bainan, "kasu! zaharoa ez utz Ebaren eskuetarat..... neholaz "ere!„ Errech balitz bezala, pint-erdia baino kuriosagoa den emazteki bat etchean ukhanki-eta, hari zerbaiten gordatzea!

Ebak zaharoa laster hatzeman zuela, erran gabe doa. Jakin-arte zertako zuen tresnatto hura goititua, Adami ez zion bakerik utzi. Eta, egia jakin zuen ber, kharba-gorria eman zaharoaz zerbitzatu ez zeno.

• • •

Itsas-bazterrerat joan ziren beraz Adam eta Eba. [Gizonak zaharoaz jo zuen itsasoa. Eta huna nun, hagunna biltzen den, zuri-zuria, pilota handi baten idurirat; eta tiroinak, amilka, charten ondarreraino. Bazterrerat heldu deneko, pilotatik elkhitzen da aziendo pollit-pollit bat, Ebari buruz jauzteka doana. Adiño bat zen arras gichena, ile nasai eta beroz jauntzia.

Loriatua, bere aziendattoari so eta so zagon Adam, bere baithan karkulatzen zuela ja; haren ilearekin zer soineko on eta gochoak eginen zitezken..... haren esnetik zer gasna gothor eta hautak moldatuko zitezken...

Orai Eskual-Herria erraiten diogun chokoa, oro larre eta oihan zen, han gizona agertu zelarik lehen aldikotz.

~~Mendiak~~ Oraikoak baino goragoak ziren mendiak, tabalagoak ibaiak. Alaina gaitzeko horma-kaparen pean zauden kaskoak eta, kapa haren petik, heldu zeien ibaieri ura aubarki eta agor arterik gabe

(6)

GOAZEN IZURALAT!

Aurthen Eskualzaleek Izuran dute beren urtheko biltzar nau-

(6)

… Oztibarre choko tti-
… autatu Izura,han beren
… rdetsiko diotegu:funt-
… zezaketela eta hauta.

… atuenetarik izana da
… baitu preseski paper
… dicitur Hostavalla".
… irat zoazinarik Jon-
… barna iragaiten ohi

… zipalak Izuran ziren
… a le Puy deithu hiri
… s eskualdetik,Vezelay
… oitiers eta Bordele
… ba-hirur egun pasatzen
… arraberriturik,bidea ri

… i-hamar mila jende
… zuen ;eliza-nausia
… ta Santa Katalina-
… sa-nausiak aldiz Jon-
… zeko paper zaharrek

… tsa egin izan diote
… bigarren mendean ira-
… zituen.Beilariak Aime-
… "Amer Picon":mihia

… ortan, -erran nahi bai-
… eta Jondone Mikele Por-
"tu- zolakoan, -jendea zarra da,zinez Galtchagorri ganat igortekoa (er-
daraz dio:ils sont franchement à envoyer au diable)..... Basa-hutsak X

(6)

GOAZEN IZURALAT!

Aurthen Eskualzaleek Izuran dute beren urtheko biltzar nausia agorril hunen hogoi-ta hamarrean.

"Izuran!....zertako Izuran?....Ez dea Izura Oztibarre choko ttipian herri ttipienetarik?....Nolaz beraz dute hautatu Izura,han beren bilkhuraren egiteko?",dute zombeitek eginen.Ihardetsiko diotegu:funtserat,Eskual-Herri guzian,toki egokiagorik ezin zezaketela eta hauta.

= . = . =

Izura,alaina,Eskual-Herriko hiri aiphatuenetarik izana da Arte-Mendean.<u>"Hiria"</u> ,diot,eta ez "herria":hori baitu preseski paper zaharretan bethi darraikon deithura:<u>"villa quae dicitur Hostavalla"</u>. Beilariak,ehunka,milaka,Compostelle daritzan hirirat zoazilarik Jondone Jakoberen othoizterat,gutiz gehienak Izuran barna iragaiten ohi ziren.

Beilariek segitzen zituzten hiru bide printzipalak Izuran ziren eiki elgarretaratzen.Bide horiek heldu ziren:bata le Puy deithu hiri aldetik,Conques eta Moissac barna;bertzea Limoges eskualdetik,Vezelay eta Perigueux gaindi;hirugarrena Tours hiritik,Poitiers eta Bordele barna.Mendiari lothu baino lehen,Beilariek biz-pa-hirur egun pasatzen zituzten Izuran pausuan;eta,gero,indar-gemenak arraberriturik,bidea(ri) jarraikitzen sekulako kharrarekin.

Igailiar eta egoiliar,bide zen Izuran zortzi-hamar mila jende heintsu hori.Ordutik Asme-rekin herri bat egiten zuen ;eliza-nausia Asme-n zen,bainan Izuran bazituzten bi kapera:bata Santa Katalinari eta bestea Sant-Antonio-ri kontsekratuak.Eliza-nausiak aldiz Jondone Joane zuen bere Patroina.Ez da beraz harritzeko paper zaharrek "hiria" deitzen baitute ere Izura.

+ = + = +

Bizkitartean,beilari zombeitek fama hitsa egin izan diote Izurari eta Oztibarreko jendeari.Hor gaindi hamabigarren mendean iragan zen batek bereziki itsuski belzturik ezarri zituen.Beilariak Aimery Picaud zuen izena,deithuratzat hobeki bailoake "Amer Picon":mihia kharats baitu eta luma zorrotz.

Huna bada zer zion gure gizonak:"Eskualde hortan, -erran nahi bai-
"ta Garazi aldean eta bereziki Izuran,Donibanen eta Jondone Mikele Bor-
"tu- zolakoan, -jendea zarra da,zinez Galtchagorri ganat igortekoa (erdaraz dio:ils sont franchement à envoyer au diable)..... Basa-hutsak X

# GOAZEN IZURALAT.

Aurthen Izuran dute Eskualzaleek beren urtheko biltzar handia agorril hunen 30-ean. Holako bilkhura batentzat toki egokiagorik hauta zezaketena Eskual-Herri guzian?

= . = . =

Izura eiki Eskual-Herriko hiri aiphatuenetarik izana da. "Hiria" diot eta ez herria; eta hori da preseski paper zaharretan bethi darraikon izena: "villa quae dicitur Hostavalla". Ehunka, milaka, beilariak Compostelle deithu hirirat zoazilarik Jondone Jakoberen ohoretan, ainhitzak Izuran gaindi iragaiten ziren.

Alaina han elgarretaratzen ziren delako beilariek segitzen ohi zituzten hiru bide printzipalak: Montpellier-etik Tolosan barna heldu zena; Cahors-etik Moissac gaindi heldu zena; Limoges-tik Périgeux barna huna zena. Biz-pa-hirur egunez Izuran pausatzen ziren, eta, gero, indar-gemenak erreberrituriк, bideari berriz lotzen sekulako kharrarekin.

Egoiliar eta igailiar, bide zen Izuran, bana-bertze, zortzi hamar milako hori, zerbait baitzen ordukotz. Ez da beraz harritzeko "hiria" deitzen baitute ere paper zaharrek.

+ . + . + . +

Bizkitartean, eskualde horietako jendeak fama hitsa zuten. Hamabigarren mendean hemen gaindi iragan zen beilari batek, Aimery Picaud zeritzanak, hitz dautzuet ez zituela hambat laudatzen.

Huna zer zion: "Dans ce pays, il y a de mauvais péagers, à savoir "auprès des ports de Cize, dans le bourg appelé Ostabat, à Saint-Jean "et Saint-Michel-Pied-de-Port; ils sont franchement à envoyer au di-"able.....Ce sont des gens féroces et la terre qu'ils habitent est "hostile aussi par ses forêts et par sa sauvagerie; la férocité de "leurs visages et semblablement, celle de leur parler barbare, épouvantent le coeur de ceux qui les voient." Eta Aita-Sainduari galdatzen zion, denak eskumika zitzan.

Beldurtzeko da beilari gaizoa akhitu-mamiturik heldua zela Eskual-Herrirat eta, behar bada ere, Bordaleko arno gozotik soberachko hurrupaturik, gibel-erraiak kechu zituela. Berzalde, gauza segurra da bere khartsutasun guziarekin mihi gaichtoko gizona zela; eta Eskual-

__IRISARRY__. - Liburu zaharrek "Oratorium de Irizuri" ja~~da~~ aiphu dute hamabigarren mende ondartsuan eta, gerochago, "l'Ospital de Sent-Johan de Irisarri" hamaseigarren mende hastean.

Alaina, "chevaliers de Malte" deithu fraideek hor jarria bazuten eliza bat eta Compostelarat beilaz zohaziner atherbe eta sokhorri emaiteko ospitale bat, batak ala besteak "commandeur" ~~bat~~ bera zutela buru. Bazterra oro oihan zen eiki eta gauak uste gabetarik hatchemaiten zituen beilariak urus ziren etche hortan janaren eta etzanaren kausitzeaz urririk.

Elizaren eta ospitalearen inguruan da herria emeki-emeki altchatu eta tarrotu. Lurrak lanthu zitutzten, ~~eta~~ oihanak alhortu eta phentzetu Ospitaleko fraideen maldan. ~~I3~~ I3IO-ean, Luis-Thematsuak (Louis-le_-Hutin) eskualde hortarat bidali zituen Rabastens aldetik gizon eta emazte emuts andana bat; bainan herria aski handia gerthatu zen, fraideen laguntzarekin, atze horien guzien haizatzeko.

(3)

# Jatsurat

"Ithurrirat" zuten deia martchoaren zortziko eskualdun emaztek.... erakasperen ederrenen ithurrirat ....grazia aberatsenen ithurrirat.

Nork bada zion emazteak lehia gaitza ducla ithurrirat? Etchepare zenak, naski: Eta, Jatsun ikusi duguna ikus-eta, ez dugu ~~segur~~ erranen (ezin dezakegu erran), gezurra ziola. Multzoka bildu dira Jatsura, martchoaren 8-an eskualdun emazteak.

Zombat ziren? segur-segurra bi milaz goiti; hiru milaz hoit ez mentura arras; bainan ez urrun bide. Belarrik denbora ederra baitzen eta gochoa, eliza-aldiaz kokatuak, kanpoan egon behar ukhen. Bainan bozaren urrun helarazteko tresna horietarik baitziren, kanpokoek ere puntatu ahal izan dute barnekoen othoitzari eta urhatseri

__Elizako urhatsak__: Hamarrak eta erdietan, Seroren etchetik athera da Jaun Apezpikiaren prosesionea; hunek baitzuen eman behar, ohore handitan, mesa nausia.

Hor gerthatzen zirenentzat, gutiz gehienentzat bederen, arras berri zen giisa hortako meza-nausia bere ospa handiarekin. Ezen baitzen Jaun Aphezpikuak Eskual-Herriko aphez-nausietarik ziten laguntzaleak. Hazarekin aphez-laguntzaile Mizontze ~~jaun~~ ~~doi~~ena oraino berritan Garazikō aphez-nausi zena; diakrea Ithorotzko dikoa eta Larzabalekoa; diakre sa-diakre Hazparnekoa eta Donaphaleukoa.

Kantuak aphez multcho batek emanak ziren, Donibaneko jaun bikarioa zutela gidari. Eta bichtan da beilariez ere bazukatela heraberik gabe beren saila. Gizonkien boz azkarrek menturaz gothorrago zuketen orroa, ez bide batere ozenago

<u>Predikua</u>. - Charriton jauna Hazparneko superiora ginuen predikari. Ez bide nehor harritzeko bera eta garbi athera balitz Badoizku egunaren erakaspenak, Frantses Zabierekoaren erakaspenak.

## II. Arratsaldean.

Oren bata ~~ozçen~~ aintzinetik zen ~~urzuan~~ meza-nausia finitu zelarik,

Luzen ~~ilen bezela~~, arimari bere bazkarria eman ondoan, othoit ziten gorphutzaz? Askok atherbea eta sehda ona kausitu dute bai serorenetan bai jatseko ostatuetan. Gozankoek hain lakhet dituzten ostatuetan, emaztekiak sartzen ahal baitire... ahan

Ez ditela bateren jelos: ostatuetan ez dire emaztekiak lakhetu. Bi orenetarik laster berriz elizarat edo eliza-inguruetarat bildaak ziren othoitzeri arra-lotzeko.

<u>Oren saindua</u>. — Alaina oren baten othoitz egiterat eta erakaspenen jakiterat deithuak ziren ziren gure bilatiarrak.

Narbaitz jaun bikario jeneralak du othoitza akhulatatu eta jakitu behar erakaspena eman

**LIGIKO ZUBIA.**

Eskualdunek ez dute debrua batere elhaire. Alimale borthitza dela badakite eiki eta ez dute zaharren errana ahanztekoa: "Debruare-

(9)

ak ez direa, alaina,
tan, badira onak eta
ra eta gizoneri la-
ra zaharrek. Obra
dira laminek egin zu-

ombat Ligiko zubi ez

egina dela. Jakint-
dakite jakintsunek?
ez dute deus ez i-
teriaz betheak dire-

lu horrek egiaren ka-
re, gizon dago; eta
chaharrak erranik,
la aspaldi, bichtan

akinik, Lecharantzu-men
juan zen. Erran zeien
niz. Lan gaitz eta bor
zuet gauza bat propo-
ar goizean oilarrak be-
chanen duzue oso-osoa,
emanen dautazue ene
Zer zautzue?"
zeien Ligiko bonet
at emaiten zeien bihot-
ez zituzkeen herria-

(9)

# LIGIKO ZUBIA.

Eskualdunek ez dute debrua batere elhaire. Alimale borthitza dela badakite eiki eta ez dute zaharren errana ahanztekoa: "Debruarekin iraulden ari denak, akhilua behar du luze!"

Beren egitekoa laminekilan nahiago dute. Laminak ez direa, alaina, gizonen idurikotsu? Laminetan ere hala nola gizonetan, badira onak eta gaistoak; gizonaren lauzkatzerat ekharriak ere badira eta gizoneri laminek eman eskukaldia frango aiphu dute gure kondaira zaharrek. Obra guti da Eskual-Herrian debruak eginak, nun nahi badira laminek egin zubi, jauregi eta bertze obrak!

Dakidala, Arrosako zubia bakharra da; bainan zombat Ligiko zubi ez dugu?

+ + = + +

Duda-mudarik ez da eiki Ligiko zubia laminek egina dela. Jakintsunek diote, bai, Erromatarren lana dela; zer ordea dakite jakintsunek? Sudurra liburuetan bizi dira eta liburuetarik harat ez dute deus ez ikusten ez konprenitzen! Eta bakigu liburuak tetelekeriaz betheak direla mukurru!

Hasteko , Ligiko zubia gizonek egina dela, ez du horrek egiaren kanorerik ere. Alaina, gizona ERromatarra izanikan ere, gizon dago; eta gizonek ezin eginezko lana da Ligiko zubia. Chachi chaharrak erranik, badakit nik Ligiko zubia laminek egina dela......duela aspaldi, bichtan da.

+ + = + +

Ibar-eskerrean zubia arras nahitua zutela jakinik, Lecharantzu-mendiko laminen erregea Ligiko bonet handien ikusterat juan zen. Erran zeien "Jaunak, zubi berri bat egin-gogo duzuela, entzuna niz. Lan gaitz eta bor "thitzari lotzekoak zireztela, badakizue. Nahi dautzuet gauza bat propo- "satu: zubiaren egitea hartzen dugu gure gain. Bihar goizean oilarrak be- "re lehen kukurukua adi-araz aintzin, zuen zubia ukhanen duzue oso-osoa, "ez baituke harri bakhar baten eskasa ere. Ordainez emanen dautazue ene "seme zaharrenarentzat LIgiko neskarik ederrena....Zer zautzue?"

Eskaintza ez zela bazterrerat uztekoa, iduritu zeien Ligiko bonet handieri. Egia erran, galdatu sariak halako hotz bat emaiten zeien bihotzerat; bainan zubiaren ukhaiteak zer gibel-ondoak ez zituzkeen herria-

(10)

NOIZKO GALARROTSAK ?

Aste huntan beharrak ginituen galarrotsak.

familia guziarekin. Eta

(10)

NOIZKO GALARROTSAK ?

Aste huntan beharrak ginituen galarrotsak.

Ikhusterat jitekoa ginuen alaina Nikita bere familia guziarekin. Eta huna nun berria heldu zaukun Nikita eri dugula!

Nikitaren kasko pelatua eta irriza

(11)

Euskaldunen jatorriaz





Nor eta nundikakoak giren, gu Euskaldunak.

…tu behar dugu: …
… erran-meran ne…
… ere egiaren kanore.

…ak girela; bertzeek
…datuen duen leihor
…uten-batetarik. Be…
…kiote bermagoile
…ona ere izan da:
… Legar erromano
… eskualdetik Espai…
…kokatu.

…itz zaharreneck ai…
… lurrean: halaber
…e mendi eta itsas
…i bere haurreko
…zpapan horien ondo…
… traba eta behar…
…ola "ilhunbean da…

…ere badilu bere
…kerak!
~~…k eta mendeak~~
…an dituela arras

Nor eta nuntikakoak giren, gu Eskualdunak, nork daki chuchen?

Askok asko erran dutela, aithortu behar dugu: ~~bai~~ Zorigaitzez erran horietan, zombat ez erran-merran ze-hun argibiderik ez dutenak? Zombat ere egiaren kanore-rik ez dutenak!

Batzuek diote ekhaldetik ethorriak girela; bertzeek mendeal alde hartan itsasoak hondatua deen leihor handi batetarik, Atlantide deitzen zuten batetarik. Be-ren erraneri edo ustekoriari ez diote bermagailu onik eta funtsezkorik emaiten ahal. Errana ere izan da: gure arbasoak iphar-alde hortarik lezar erromano aitzindari aiphatuak Ecosse deithu eskualdetik Espai-niarat ekharri zituela eta hemen kokatu.

Saint-Pierre zenak egia dio: "Haritz zaharreneek di-"tuzte beren erroak barnena gordeak lurrean: halaber "Eskualduna haim dago zahartua bere mendi eta itsas-"labarretan, nun galdua baitauka osoki bere hasereko "egunen orhoitzapena". Erro eta orhoitzapen horien ondo-tik lotsa zen idazlari biphila "asko traba eta behaz-topa harriren jotzea gerthatuko" zaiola "ilhunbean da-"bilanari bezala".

Bizkitartean ilhumbe horrek ere badutu bere argiak, hemen aiphatu nahi gintuzkenak!

Eta, lehen-lehenik, hauche! ~~mendeak eta mendeak~~ Eskual-Herriak bere egoiliarrak ukhan dituela arras

goizik .... biziki goizik. Egoiliar horien hatzak kausitzen ditugu han-hemenka: hala nola Kamboen, Saran ~~eta~~ Ichturitzen, Gernikan Santimamiñen.

Egoiliar horiek harpetan bizi ziren. Beren tresnak gehienak harrizkoak zituzten: ~~harriz~~ su-harria pikatuz, zorroztuz, leguinduz moldatuak. Bazituzten ere hezurrezko orratzak eta manu-makhilak. "Baiona inguruetan, dio Saint-Pierre-k, atzeman dituzte orduko lanako harriak, "Bidarteko leihorrean eta Miarritzekoan asko tokitan; "Hiriburuan ere, bi, hiru tokitan, Errobi-hegian eta Lizaga-"ko gainean; Milafrangan, Poiloko cihera-hegian eta Dubo[illegible] "gora doazin aldapetan; Mugarren, Eskoteplouy deitu "cihera zaharraren ondoan; Urketan, Kurutzetik herriko "ur gazien putzu inguruetan: harritzeko aizkora bat "ederra, oraino lan onaren egiteko gai litakena herri "hortan bazagon, mende zaharretako gizonek egina".

Egoiliar horien hatzak oraino, harri-luze chutak, eta hauk erdaraz menhir deitzen dituztenak, batzu bakharka eta bertzeak inguru-ingurua emanak, eskuaraz Mairubaratzak deitzen ditugu eta erdaraz "cromlecs". Hatzeman dituzte asko Aralar-eko, Enziako, Urbasa-ko, Uztarroko mendietan.

Ohartu behar dugu ere egoiliar horiek ez zirela ez batzuek dioten dioten gizon herrebes eta tontoak. Utzi dauzkiguten deseinu eta chichetaduretarik ageri da bazakitela gauzak nola ziren behatzen eta bazutela jeinu eta esku-aire abreen eta gizonen ichuratzeko. Ichturitzeko harpean, Passemard jaunak hatzeman zuen

(12)

# " SAN DOMINGOREN ARGIAN "

Tolosatik heldu berri zauku liburutto bat izen hortakoa. Liburua ez da lodi:berrogoi bat paia ditu nunbeit han,erdiak irakur-lerro,erdiak potret-itchura;ez du liburuttoak ez nehoren lotsatzekorik,ez nehoren nardatzekorik.Achalez argi eta mamiz aberats, "san Domingoren argian" garamatza laster eta airos,urrun eta barna.

(12)

rtuko dugu,ez dugula
.are gutiago,menturaz,
dute hortan Eskual-

ugula liburuttoa,be-
erra!Laphurdin barna,
iki,arras gutik [illegible]-
eta zer diren Domini-
e batzu ikhusirik beren
le da Dominikanoez Es-

gu hemen gaindi ere:
len,serorena.Baionan
nibane-Lohizunen se-
ren egon-lekhuetarik
erri gehienetan ez bai-
k ez serorarik.
inikanoaren biziaz
nolako diren eta zer-
aren idurirat;bainan
gaitzak dira eta pre-
a prediku-alkitik erei-
gogotik,baitakite hei-

darra agertzen!......
s-zabalaren jabe zita-
semea!
are liburutto baliosak.

" SAN DOMINGOREN ARGIAN "

Tolosatik heldu berri zauku liburutto bat izen hortakoa. Liburua ez da lodi:berrogoi bat paia ditu nunbeit han,erdiak irakur-lerro,erdiak potret-itchura;ez du liburuttoak ez nehoren lotsatzekorik,ez nehoren nardatzekorik.Achalez argi eta mamiz aberats, "san Domingoren argian" garamatza,laster eta airos,urrun eta barna.

+ = = + = = +

Aithortu behar dugu eta lañoki aithortuko dugu,ez dugula Eskual-Herrian san Domingo hambat ezagutzen....are gutiago,menturaz, san Domingoren obra.Bizkitartean hobenik othe dute hortan Eskualdunek?

Dominikano eskualdun multcho baten lana dugula liburuttoa,berak salhatzen daukuna da.Eta ez,segur, lan auherra!Laphurdin barna, Bachenabarreko eta Chuberoko chokoetan harat,eiki,arras gutik dakite nun nor eta zer izan zen Domingo,nun nor eta zer diren Dominikanoak.Zombeit orhoit dire,han edo hemen,fraide batzu ikhusirik beren soineko churiarekin.Bainan hortan baratzen bide da Dominikanoez Eskualdun gutiz-gehienek duketen jakitatea.

Bizkitartean,Dominikanoen komentuak baditugu hemen gaindi ere: Miarritzen,bai fraideenak eta bai serorenak;Maulen,serorena.Baionan bizi dira Dominikano serora eri-arthatzaleak;Donibane-Lohizunen serora eskol-emaileak.Bainan hain guti dira bai beren egon-lekhuetarik bai beren lan-tokietarik urruntzen nun eskual-herri gehienetan ez baitute behinere ikhusi arropa hortako ez fraiderik ez serorarik.

Gure liburuttoak argitzen gaitu fraide Dominikanoaren biziaz eta sailaz.Potret eder batzuetan ikhusten dugu nolako diren eta zertan ari diren.Jauntziz churi eta beltch.....pikaren idurirat;bainan ez -hurbildanik ere-"pikaren azken ume":langile gaitzak dira eta predikatzaile suharrak.Liburutegian bildu jakitatea prediku-alkitik ereiten dute nasaiki.Gazteak jarraikitzen zaizkiote gogotik,baitakite heien bihotz beroaren eta adimendu argiaren berri.

+ === + === +

Alaina,fruituaren gozoak arbolaren indarra agertzen!...... semeak nolakoak, aita halakoa.Zer bihotz aberats-zabalaren jabe zitakeen Domingo,Feliz Guzman-en eta Joana Aza-ren semea!

Bertzeak bertze,hori ere salhatzen dauku gure liburutto baliosak.

Eta,horri esker,zombat Domingo-k....zombat Dominiche-k dakikete
zer zuhaitz nasaiaren itzalpean bathaiatuak izan diren,zer izen e-
derraren maldan bizi diren.Sainduarekin ezagutzak eginen dituzte,
haren lehen-lehen lagunetarik bat dutela ararteko.Liburuaren egile
Eskualdun Dominikano multchoak,eiki,Joanes Garaztarra du gidaritzat
hartu berak ere;eta,diotena,hunen erranetik diote.

Arrats batez,Joanes horrek,Donibaneko karriketan,kausitu zitu-
en bi gizon,Espainia alde hortarik heldu zirenak.Harritu zen jakitea-
rekin "itchura gutikoak" zauzkan gizon horietarik bata aphezpiku ze-
la eta bertzea kalonje.Heien begitartea ez zuen begietarik galdu a-
hal ukhan;heien orhoitzapena bihotzean gelditu zaion errotua.Eta,han-
tik zombeit demboraren buruan,entzun zuelarik kalonje gaztea lagun ke-
ta zabilala Ordre berri baten muntatzeko,haren ganat laster egin zuen.

Bi gizonek elgar untsa ezagutu dute beraz.Joanes-ek dio:"Asko
"solas egin dut Domingo Anaiarekin.Asko lekutan,harat hunat,gauaz egu-
"naz,ibili naiz harekin.Haren berri badakit beraz eta ene erranak egi-
"ak dira,nihaurek ikusi eta entzunak baititut edo lekhuko zuhurrez
"frogatuak".Holako gidariarekin,nolaz ez dugu,guk ere,Domingo ezagutu-
ko eta maithatuko?

+ = + = + = +

Amodiorekin moldatu liburuttoa,eskura-zazu amodiorekin.
Eskuratuz geroz,ezin zaudezke irakurtu gabe.;..jakitu gabe,hain bai-
ta eskuara lañoan eta pullitean egina,han hemenka behaztopaño batzu-
ekin,liburua lakhetago baizen ez baitu ~~iduri-arazten~~.Usteko duzu
mendiko ur-chirripa garbitik hurrupa bat dukezula ahorat.

xxxxxxxx- S.A.

lat. Ci
Baser
bestea
tzen dena
alabaina
batenaz
zanbu
tea eta
oihasea
beta: ta-
tea berea
ko.
mela. Bai-
tean amai-
la etaca
reak baso
lat egon

Bazen behin emazteki bat, bi haurrekin alhargüntsa geldituia. Haur horietarik bata alaba zuen eta bestea alabaizuna. Eta, ardura gerthatzen dena alaba maite zuen itsusiki, eta alabaizuna aldiz ikharagarri hastiatzen. Hambatenaz ere biziago zuen bihotzean herra zombatenaz ere baitzen itsusiago alaba eta ederrago alabaizuna.

. . .

Goiz batez bada, atharguntsak oihanera igorri zuen alabaizuna marrubi-keta: zarea bethe~~tzi~~ ekhar zezon ez baizitaien beraz eta asto beltchuranak entzun nahi.

Negua zen eta hotz bat ari arraila. Bainan haurra ~~umila zen eta~~ bazakien amaizunaren ~~bezi~~ manuak manu zirela eta

Zentzuaren banourta? ez zen ez zuen marrubi keta abiatzea

umila zen, bertzak hotzari; abiatu zen eraki bertz eta othoitzik, zeruko amari othoitz bat egiten

(14) blik aucune mots

1

, la
sa fem-
à la
ux fils:
Saint
ectrice,
aux reli-
nt les
les ca-
ses frais
45, une
de la Bre-
es enfants.
lle Teland.
de faire
déplacer.
: la
Mme
dimar-

# — L'affaire Finaly —

**Historique** :– 1° – a) En février 1944, la Gestapo arrêtait le Dr Finaly et sa femme, autrichiens réfugiés en France à la Tronche. Ils avaient confié leurs deux fils : Robert et Gérald à la pouponnière Saint Vincent de Paul de Meylan – La directrice, ne pouvant les garder, s'adressa aux religieuses de N. D. de Sion qui remirent les enfants à Mlle Brun – b) Celle-ci les cacha et les soigna et les entretint à ses frais jusqu'à la Libération. En février 1945, une sœur du Dr Finaly écrit au maire de la Tronche pour demander des nouvelles des enfants. Elle désire les faire venir en Nouvelle Zélande, mais les enfants ne sont pas en état de faire le voyage et Mlle Brun ne peut se déplacer. Elle propose qu'on vienne les chercher : la lettre demeure sans réponse – c) Mme Fischel (sœur du Dr Finaly) fait des démar-

ches au ministère des Affaires-Etrangères, à la Croix-Rouge, au parquet de Grenoble ; elles n'aboutissent pas - d) Dans l'automne 1945, une tante paternelle rend visite à Mlle Brun, la remercie et la prie de garder les enfants - Un autre membre de la famille réclame titres et valeurs sans s'inquiéter des enfants - e) En novembre 1945, "soucieuse de se mettre en règle avec la loi", Mlle Brun fait réunir un conseil de famille (12 novembre) qui lui confie la "tutelle provisoire". Le Dr avait fait circoncire les deux enfants - il désirait que les enfants demeurassent Français - f) Mlle Brun assuma la tutelle des deux enfants - elle s'était profondément attachée à eux. En 1948, elle les fit baptiser.

2. - Quelques mois après, M. Keller, israélite grenoblois, entre en scène: - a) il se présente comme mandaté par la famille pour prendre les enfants et les envoyer en Israël. Comme tutrice, Mlle Brun s'y refuse. En 1949, M. Keller se présente de nouveau, porteur, cette fois, d'une procuration d'une dame

Rossner, tante des Finaly, demeurant en Palestine – b) le 24 janvier 1949, un Conseil de famille se réunit à la requête de Mlle Brun – Ce conseil autorise la tutrice à souscrire une déclaration de nationalité française pour le second enfant – le premier avait été déclaré par le père lui-même. – c) le 28 juillet 1949, un nouveau Conseil de famille déclare que les enfants devront être renvoyés à Mme Rossner. Mlle Brun proteste ; elle attaque en nullité les décisions du conseil de famille, excipant du désir paternel que les enfants fussent Français. De fait, les décisions sont annulées (le juge de paix était incompétent) – d) le 14 novembre 1950, nouveau Conseil de famille présidé, cette fois, par le juge compétent. On enregistre la protestation de Mlle Brun. Mais, le 5 décembre 1950, passant outre aux protestations de Mlle Brun, le conseil de famille nomme Mme Rossner

tutrice des enfants et ordonne de remettre les enfants à M. Keller – c) L'affaire est portée devant le tribunal civil de Grenoble qui déclare nulle la délibération du conseil de famille (15 novembre 1951) – La Cour d'appel de Grenoble estime, au contraire, qu'il n'y a pas lieu d'annuler la délibération du 5 décembre 1950 (11 juin 1952) – Mlle Brun se pourvoit en cassation (août 1952); mais le pourvoi n'est pas suspensif. Et Mlle Brun redoute que, si les enfants partent pour Israël, ils ne seront jamais rendus; elle refuse de donner suite à une sommation par huissier de M. Keller.

3° Ce dernier dépose une plainte, "pour non-présentation d'enfants". Le tribunal relaxe Mlle Brun (28 novembre 1952) – a) Le ministère public et les parties civiles font appel. La Cour commence par se déclarer incompétente mais décerne un mandat de dépôt contre Mlle Brun – b) Mais, depuis août, les enfants avaient disparu. Hébergés d'abord à l'Institution N.-D. de Sion, à Grenoble, les enfants sont dirigés, fin janvier 1953, à Bayonne

et reçus à l'Institution Saint Louis de Gonzague par l'intermédiaire de Mlle Sétoain, professeur à N.D. de Léon dont le frère est professeur à Saint Louis. — c) le 1er février, M. le chanoine Silhouette
supérieur de St Louis, découvre l'identité de ses nouveaux pensionnaires et il prévient le Parquet de Bayonne qui lui confie la garde provisoire des enfants et le Procureur avertit M. Keller de venir chercher les enfants — d) le 3 février, M. Keller arrive, mais les enfants ont disparu. L'abbé Ariztia les a pris dès le matin et les a conduit chez le Curé de Saint-Léon, l'abbé Ragola qui, avec la complicité de l'abbé Lacaque directeur au Grand-Séminaire et de M. Tagalde, les conduisent à un manoir près de Bayonne mais isolé appartenant à Mme de Gorostarzu. Les enfants y séjourneront du 5 au 13 février — e) le 13 février, les enfants sont transportés en auto chez le Curé de Biriatou, paroisse de montagne à la frontière, par M. Etchequette

15

# Landa-ta-Ibar

EYHERALDEKO zubitik, Zernaïzeko kaskorat; Ipharlatzetik, Lapharzabalerat, alhor eta phentze, landa eta ibar, bazter eta hegal badu Landibarrek. Ditake munduan erresuma chumeagorik; ez bide bakeha-riagorik. Bithirinatik. Armendaritzeraino, Ostangoa, Izura, Larzabale, Ainhiza, Suhuskune eta Iholdy barne, auzo eskasik ez du; bizkitartean orekin du bakea.

Egiaz, auzoekin bakean bizitzea etzaio nekhe: Behaunetik, Azkongegirat, ibarra ongi maldatua daukate mendi gothor eta aldapa nasai batzuek. Bere ichurgiak ditu : Bathirinan barna, Donaphaleurat eta, Zimitz-errekan gaindi, Iholdirat. Astean bietan, igorten dio harek bere okhinen ogia ; hunek, egun guziez, mundu zabaleko berri. Hamabostetik deramazkio, harek bere borthako-aratcheak; hunek bere antzara-oilaskoak. Landibarrek aldiz biltzen heien sos churi-gorri ederrak... nun ez derauzkioten bere papertto urdin-machkaroak uzten !

## I. — Bi zathitan ibarra

Mende osoak, ibarra bi zathitan egona da: Landibarre eiki ez da araikiea ; ukhan ere du ~~ospa gehiago eta hazi ez da oraikoa; khan ere~~ da ospa gehiago eta hazi jendetze handiagoa. Duela zazpi-zortzi ehun urthe, Bachenabarrek zazpi « *baronia* » handietarik bat zen. Nafarroako erregeen meneko eta Akizeko bizkundeen eskupeko. Ez giniakike chuchen noiz eta nola erori zen Lukuzeko jaunen eskuetarat

Hamahirugarren mendean, Gaillard, Akizeko aphezpikuaren eta Amanieu, Amikuzeko diakre-nausiaren baimenarekin, Piarre-Arnaud II Lukuzekoak ibar-pea eskaini zion Nicolas, Lehuntzako abadeari, ibar-gaina beretzat idukitzen bide zuela. Emaitza hori da, Landibarrez liburu zaharrek aiphu duten lehen goiti-beheitia.

Bere arbasoen berri zakikeen Piarre-Arnaud jaunak; bethidanik gizon gose eta gogoren omena zuten Lukuzetiarrek. Umeetan, heien odolak ez othe zukeen khalda bera? Lotsa bat bihotzean zuela jaun jainkotiarrak dirudi, eta bere emaitza behin-bethikotz nahi ukhan bermatu. Hortakoz zituen Behauneko elizarat bildu Bernat eta Lup-Bergon, bere bi anaia fraide zirenak, bat Lehuntzan eta bestea, Sordesen; Piarres de Gramont, Utsiateko gehien eta Oztibarreko aphez nausia. Eliza jendez mukurru bethean, Lukuzeko jaunak Ebanjelio sainduaz zin egin zuen, bere eta ondokoen izenean, Behauneko lurrak Lehuntzako abadiari uzten zituela.

« *Cum, secundum Apostolum, operandum sit bonum ad omnes, maxime vero ad domesticos fidei*, dio emaitzaren aitriak, *notum esse volo tan præsentibus quam futuris, quod ego, intuitu pitatis ductus, pro salute tam animæ meæ quam parentum et prædecessorum et successorum meorum, locum qui dicitur Behaum, cum omnibus dependentiis suis, sicut eum tenuit pater meus et ego post ipsum... devota et liberali largitione, Domino Nicolao abbati et fratribus Honciæ Præmonstratensis ordinis, contuli in perpetuam elemosynam, perpetuis temporibus pacifice et libere possidendum... Istaeleemosyna et donatio facta fuit apud Behaum, in ecclesia Sancti Petri, super altare, per ramun et cespitem. in præsentia quamplurimorum clericorum etetiam fratrum et sororum ibidem degentium.* »

Jendea iragankor eta ahanzkor dela zakielakotz, — « *quia generattio præterit et labilis mortalium memoria* » — ahal zituenak egin zituen bere eskaintzaren gogoetan finkatzeko. Zion ere : begia eta eskua atchikiren zituela fraideen zuzenak nehork ez zitzan zangopetan eman : « *Juravi quod fratribus molestiam vel gravamen inferri non permitterem.* » Eta, orduan, indar handiak baitzituen Elizak, haren gerizaren pean jarri zituen Behauneko nausi berriak : « *Petrus de Gramont, prior d'Utxiat, auctoritate pontificia, exommunicavit omnes illos qui de cætero reclamabunt vel se opponent donationi.* » Ageri da, bere eskaintzari, Lukuzeko jaunak ahal zuen gogortasun guzia eman nahi ziola.

Ordutik da ibarra bi zathitan gelditu : ibargaina, aphez beraren meneko zauzkala Jaundozteyko eta Azkombegyko elizak: lehena Jondoni Ezteberen eta bigarrena Jondoni Chipirineren izenean; ibar-pea, Behauneko fraide-gehienak menpeko zituela Jondoni Petriren eta Jondoni Martine-ren elizak. Errebeluzione handiraino, bi eskualdeek, beren saila, bereber daramakete, batak besteaz achola handirik gabe.

***

Chehetasun guti dakigu ibar-gaineko goitibeheitiez : gaintiarrek, beren chokhoan, etchekoz-etcheko goratzen zituzten beren zorionak eta jasaiten beren ezinbsteak. Bikarioa lagun, bere bi elizetako fededunak lorian zeramazkan Jaundozteyko erretorak. Diotenaz, oilasko baino talo ardurago jaten ohi zuen; bainan ni beldur hori petiarrek asmatua dutela. Dena dela, gaineko aphezak jaun chehe ziren Behauneko erretor aberatsen al-

dean.

Bos-pa-sei erretoren izenak zauzkigu doi-doia heldu : Jean d'Etcheverry ( ? -1712), Damestoy (1712-1736), de Haramboure (1736-1766), Borge (1766-1770), Erreca-Etchevers (1770-1786), Amexague (1786-1791). Horietarik hirugarrena herriko ume eta Haramburuko seme bide zen, Henri IV-gerrenaren aitzindari-nausi baten odoletikakoa. Hogoi-ta-hamar bat urthez, zeruko bidean bidatu zituen bere herritarrak; eta Borge, Arbutiar bikarioari utzi zion Jaundozteyko eta Azkombegyko erretorgoa. Hau, hogoi-ta-hamar urthetan, hil beharra zen subitoki : Jondoni Ezteberen elizan ehortzia da eta aphez horren hil-harria han ikhus ditake oraino.

***

Gaintiarrek ichil bezain, petiarrek liphiztari ukhanen dituzte erretorak. Hauk, bizkitartean, — Behauneko erretorgoa komentuko gehienaren eskuetan zenaz geroz, — fraide ziren denak. Bainan fraideek ere beren itzalak ba; eta iduri luke Behauneko gehienak etzirela oro gibel onekoak. « *Ah! ces bons moines!. . ces bons moines!* » erraiten ohi zuen Pierre d'Eliceiry jaunaren emazte dohakabeak.

Peko erretoretan aiphatuena, Marc-Antoine d'Eliceiry herriko seme zen. Gizon antze eta hedadura handikoa, Marc-Antoine, bai eta larderia gaitzekoa. Akizeko jaun aphezpikuak, urthe laburrik barne ezagutu zuen eta, bikario handi, laguntzat hautatu, diosesaren gobernatzeko. Erne eta biphil, hiruetan hogoi urthez bidaturen du herria eta, hogoi bat urthez, Amikuzeko eskualdea : nagi loloek ez baitzuten lore!

Bainan bethidanikako errana da : « Nola aphezaren khantatzea, hala bereterraren ihardestea » Marc-Antoine d'Eliceiry-k bere menekoeri ozen eta gora manatzen ohi zeien; menekoek ere ordea Marc-Antoine d'Eliceiry-ri, artetarik ozenkiago eta gorakiago ihardesten : zaïnak achal, alabainan, laphitzaren gainean sorthuek. Dena dela, 1665-an bere menekoekin auzitan zen Marc-Antoine d'Eliceiry. Jondoni Martieko serora aphezak bere burutarik hautatua zuen; Landibarreko etcheko-jauneri hori gaitzitu zeien eta erretorari oldartu zitzaizkon : baizik eta herritar guzier zela andere-seroraren izendatzea. Ez dea bada bitchi? Demborak joaki eta... gure herrietako goiti-beheitiak bethi bertsu egoki!

Erretor borthitz eta biphila hil zeielarik, Behaunen 1636 tik eta 1696 rat egon ondoan, bichtan da Landibartar gaizoak hatsa-

n/1
n/1

hartu nahitucheak zirela. Aphez biphil horren ondotik «ardi buluziari haizea izartzen» dion Jainkoak Behaundarreri igorri zeien pausuko gizon bat : Piarres d'Eliceiry Marc-Antoinen anaia. Odol beroko gizonak zirela Eliceiry-tiarrak : mendeak lekhuko hor ditugu. Bainan adinak ez othe dauka odol irakituena bera laster hilikiturik? Eta bada, Behauneko erretor sarthu zelarik, Piarres d'Eliceiry-k... lauetan hogoi-ta-sei urthe zituen! Hartzeko dea ezinduchea bazen ere eta, dembora laburrik barne, erretorgoa utzi behar ukhan zuen.

* * *

Hatsa hartu nahi, eta, futcho! epherik ez: phausuaren gozoa jastatu zuten bezain laster, huna nun gure petiarrek erretortzat ukhanen dituzten hiru Chuberotar, bat-bestearen gainean : Bisquey (1698-1701), Domecq (1701-1747), de Suhare (1781-1789). Eta ez direla Chuberotarrak lolocetarik, gauza jakina da.

Sohuta-Bizkayko semea zen lehena. Iragaitea baizik etzuen egin Behaunen : herriko liburu zaharretan, haren izena ez dugu hirulau urthez baizik kausitzen. Gero zer bilhakatu zen, ez giniakike; beste zerbait kargutarat deithua izan zitakeelako beldurra dugu.

Bisquey Sohutarraren ondotik, Domecq Bildoztarrak zuen ukhan Behauneko erretorgoa. Erretor berria gazte zen eta hein bat minbera. Herrian gerthatu zitzaion bada, — nunbaitikako zorthe gaistoa! — andereño bat kilikaz zorrik batere etziona; Eliceiryko etcheko-anderea. Delako andereñoak delako aphezñoari gain-gainetik gaitzitu! Auzitan hasi ziren bai; eta, hogoi urtheren buruan, oraino, bai delako andereñoa, bai delako aphezñoa, biak, bata-besteaz, handizki arrengura ziren. Zahartzearekin, bizkitartean, zebatu bide zen Bildoztar beroa eta dirudi bakeanche eremen zituela bere azken urtheak.

« Hi handi, ni handi; nurk erranen dü gure astuari : arri? » diote Chuberotarrek : horrek galdu zuen Domecq; horrek galduren du de Suhare. Behauneko erretora eta Jondoni Martineko jauna zoin handiago beharrez ariko dira. Eta zorigaitzez, biek batean diote astuari erranen : arri!... hain saminki non putarka joanen baitzeie, debruek hartua!!!

Behaunerat heldu bezain sarri, de Suhare jaunak nahi ukhan zuen « baronia »-ko jujeen artean jarri eta d'Eliceiry jauna heien gehiengoaz gabetu. Eliceiry-tiarrak ez baitziren ordea marrakarik egin gabe larru zitazkeen gizonetarik. Jondoni Martineko jaunak Pabe-

rat oihu egin zuen eta Pabetik ardietsi Landibarreko auzbakidetik erretoraren kampo emaitea.

Laidoa barna hartu zuen erretor handigurak; eta huna nun zuen mendeka-bidea, ezen Erramu-eguna hurbiltzen ari baitzen. Ohidura zaharra zen eiki, egun hortan, erretorak herriko jaunari erramu benedikatu lehen aldachkaren ohorea eman zezon. Bere etsaiari ohore hori eman baino lehen, de Suhare jaunak, urthe hartan, erramurik etzuen benedikatu. Sumindua, d'Eliceiry bigarren aldikotz Paberat hersatu zen eta Pabek ihardetsi zuen ohidura zaharrak behar zirela iduki. « *La Cour fait défense tant au dit prieur de Béhaune qu'à tous les autres prêtres du ressort de rien innover dans l'usage établi pour l'exercice des offices divins, sans y être autorisés par une ordonnance de l'Evêque diocésain, préalablement publiée aux formes ordinaires en conformité des ordonnances royales.* »

Zauria zauriaren gainerat, ber erabakiak de Suhare jaunari kalonje izenaz agerien bermatzeko zuzena ukhatzen zion « *La Cour fait défense tant au dit Prieur de Béhaune, qu'à tous autres religieux de prendre dans les actes d'autre qualification que celle de Frère.* » Eskarda bat begi-ñiñikan sarthu baliote ere, ez bide zuen bihotz-zimiko saminagoa harturen erretor gaizoak : hain baitzen kalonje izan nahitan. Egiaz, bere hartan koskatua egon zen, eta ordutik, atsegin bat zitzaiola lirudike bere izenaren ondotik bere kalonjegoaren aiphatzea.

Oraino berritan, ertor-etcheko berina batean, orratz puntaz finkatuak irakur zitazkeen hitz hauk : *de Suhare, chanoine*. Mendearen buruan, de Suta jauna kalonjegoari zoin zen atchikia, agertzen zuten; eta, delako berina, duela zombait urthe, langile herrebes batek hautsi duelarik, kalonje nahiak, beste munduan, handizki senditu duke.

***

Chuberrotarrek harrotu bazterren ematzeko, Akizeko jaun aphezpikuak, anartean, Laphurtar bat igorri zuen Behaunerat erretor : Jean-Baptste Darrgol Lehunztarra (1764-1781) Komentu zaharren berritzeari, beroberoa, lothu zen Darrigol, athe-gaineko harrian emanak diren neurthitzek agertzen daukutenaren arabera :

*Flamen, tecta reædificare labentia curat,*

« Bere Jainko Jaunaren loriakotzat, Darrigol apheza bermatzen da erorterat dohan etchearen altchatzerat. »

Darrigol jaunaren neurthitzek gauza han-

dirik ez dute balio, bat bada ere osoki maingu dena. Zorionez lana neurthitza baino hobeki zeraman; eta, nahiz hasi lana ez duen bururaturen ahalko, Landibarreko erretorek hari zor diote egoitza bat gozoa eta nasaia. 1781 ean eiki Darrigol Subernoarat izendatua izan zen. Golde nabarrak, ildo erditan uzten zituela, Behaunetik urrundu zen beraz :

*Atque, opere in medio, defixa reliquit aratra.*

eta, mende osoa, lana egonen da erdi-egina, nehork ez baitu berriz golde-giderrari lothu nahiko !

## II. — Lauak bat

Hemezortzi garren mendean, erresuma osoa pekoz-gora eman zuen Nahasmendu Handiak Landibarreko chokhoa ere jo zuen; ez halere beste asko toki bezain borthizki. Ibarreko bi erretorak : dela gainekoa, Amexaga Izuratarra, dela pekoa, Saint-Jaime Suhuskundarra, bakhotcha bere arthaldearen erdian egon ziren, gordeka zituztela batak altchatzen, besteak sustatzen, oro argitzen eta bazkazen. Bizkitartean, 1793 an, biek Espainiarat lekhutu behar ukhan zuten, Eliza Gobernamenduaren menpeko egiten zuen Legea ez baitzuten onhartu nahi.

Otsoak barrandan zagoela jakinki eta, bichtan da gure bi artzain suharrak azken beltzean baizik etzirela herritik urrundu. Gobernamenduak alabainan Landibarrerat bidaliak bazituen hiru aphez « assermentés » zirelakoetarik : Etcheverry, Lasa-Inchauspeko semea, Piarres Hargindeguy, Muñulastarra eta Piarres Harispe, Bidarraytarra. Lehena, « Aphez-Beltza » deitzen ohi zutena, Behaunen zagon; beste biak aldiz Jaundozteyn eta Azkombegyn.

Beren ezinbestean, bai Amexagak, bai Saint-Jaimek, bihotzean minaren eztigailu, zeramaten, bizkitartean, atsegin hau : arthaldeak otsoetarik zaintzale bazukeela; ezen, chokho huntan bakea zuketeelako ustekundean, asko beste herrietako aphezek Landibarrerat ihes egina baitzuten : hala nola, Elgue Orzaiztarrak, Paul Donibandarrak, Saubidet Aruarrak : gutartean gehienik egon zirenak baizik ez aiphatzeko. Horrela, tokiko bi erretorak urrunduak izana gatik, Landibartar fededunek bazakiten aphezeta norat jo. Gau guziez, han edo hemen, entzun zezaketen meza saindua; igandetako eginbidea bethatzen ohi zuten sarri Jondone Marti-Karrikaburuan edo Ahantzetan, sarri Azkombegy-Emategian edo Jauregian, sarri Behaune- Elizetchean : nola baitzen gerthatzen. Jaundoztey Haramburuan ere ardura bazuten apheza: hango oihan zokhoetan ala baitziren gostura

beren urhatsen egiteko!

Landibarren, holachet, doi bat gochoki iragan zituzten ordu nahasi hetako egunik latzenak, eta nahiz lau elizak hetsiak ziren, bat-bederak, erlisioneko gora-beheretan, errechtasunak oro bazituen, alabadereko irriskurik gabe. Herriko artzain zuzenak berak ere, bestalde, lehiatu ziren Espainiatik, lehen-bai-lehen sartzerat, eta, bakhotcha bere chokhoan, sailari arra-lothu ziren : Amexaga 1795 ean eta Saint-Jaime 1799 an.

***

Azkenean bada, erauntsi gaistoa ere baratu zen eta bazterrak ziren zebatu. 1801 ean Napoleonek hautsi-mautsi bat Aita Sainduarekin egin zuen Elizaren harat-hunataren gainean. Gauzak laster ziren, orotan, chuchendu, erresumako aitzindari berriaren biphiltasunari esker.

Delako hautsi-mautsiak Landibarre hala nola Amikuz-eta-Oztibarre Baionako jaun aphezpikuaren eskuetan emaiten zuen. Mgr Loison, 1802 az geroz Baionan aphezpiku zenak, Amexaga Ozañerat erretor igorri zuen 1803 an eta, hunen orde, Bernat Etchegoyen Haltsuarra Jaundoizterat izendatu. Etchegoyen-ek, bizkitartean, etzuen luzaz ibar-gaineko bakeaz gozatu behar bere arthaldearen ezagutzeko astia ere etzioten utzi : 1804 ean eiki Jatsurat bidali zuten erretor, Ibarreko lau elizak aldiz esku beretan eman zituzten eta Saint-Jaime ezarri bai gaintiarren, bai petiarren erretor.

Landibarreko erretorak, ordutik, bere egoitza behar zukeen ontsalaz Jondoni-Martinen, ibarraren erdi-erdian; ondikotz, eliza-inguruetan, etzen hortako on zitakeen etcherik; eta, bere familiarekin, Saint-Jaime jarri zen Behaune-Etcheberripean.

Gizagaizoari beraz, indarrak ttipitzearekin, handitu zioten karga eta hedatu alhorra. Etzen oraino baitezpada zaharra : berrogoi-ta-hamar bat urthe zituenaz geroz; bainan desterruan egona, nahigabe anhitz jasana, ja hautsia zen: Guillemarchand, Donaphaleutar gaztea eman zioten bikaritzat.

1818 ko urtharrilaren 22 an hil zen Saint-Jaime eta Behauneko eliza athetan zuten ehortzi.

***

Saint-Jaimeren bi lehen ondokoak, 1789 tik 1800 erainoko egun latzek utzi herechen ezeztatzeari bermatu beharrak ziren. Desmasia gaitzak bazituen delako Matchidanak eginak bai arimetan, bai elizetan : ainhitz munta zuen, lehen-bai-lehen, batzuen nola

besteen suntsitzea.

Arimetako desmasien chuchentzea, bizkitartean, lehen : sail horri lothu zen bada, berehala, Guillemarchand eta jarraiki hogoi bat urthez (1818-1839). Batzarre oneko eta bihotz handiko gizona zen; gozo eta ezti, herrian orok errotik maithatua zuten. Jendearen biltzen bazakien beraz, eta, laster, erlisionea bazterrerat utzia zuztenak, bere ontasunaz, ohiko urhatsetarat ekharri zituen.

Ondikotz, bihotzez bezain gorphutzez nasai zen eta, Landibarreko harat-hunaterentzat, gantza soberakinak deus ez du balio. Behaunetik, Jondoni-Martinerat; Jondoni-Martinetik, Jauhozteyrat; Jaundozteytik. Azkombegyrat, bi kintaleko gorphutz bat behar delarik erabili, eta, arduran, barurik, gizon baten higatzekoa bada, den indarrez dohatuena izan dadiela ere. Orduan, eiki, erretorak etzuen, nola orai, meza-bezperen emaitea bakharrik Behaunen eta Jondoni-Martinen; hilabete oroz, elizako itzuli guziak behin eman behar zituen Jaundozteyn eta Azkombegyn. Harritzeko othe da Guillemarchand gaizoa goizik nekhatu bazen ere?

Bestalde, bi arreba bazituen berekin, dutchuluko mama gorria maitechko omen zutenak. Beren anaia gaizoari suge ederrik iretsarazi zakoten : baitzuen aphez-ophil-onak, zuen bihotz guziaren beharra, arrebek egin saltsen argitzeko eta... egoskitzeko!

Dena dela, gazterik hil zen Guillemarchand orhoitzapenik gozoena uzten zuela herritarren artean.

* * *

Nola arimak hala elizak, bortchaz, bazterrerat utziak izan ziren 1789 tik 1800 rat, bichtan da hamar urthe heien buruan osoki behartuak zirela : ibarreko lau elizen erreberritzeari bermatu zen Guillemarchand-en ondoko erretora, Hiriart Martin, Kambo-Altchuberhoko semea (1839-1864).

Laphurdin sorthua, Laphurdin (Saran) bikari egona, Laphurtar baten burkhoikeriarekin da bere sailari jarraikiko. Hamabost urthez, sosez-sos, arditez-ardit, bilduko du gogoan dituen gastuen dirua. Sosa bildu duen bezain laster, lothuko da lanari; 1854-1855 etan, aphainduko du Behauneko eliza, zeinutegia, berrituko : eta, 1864 ko buruilaren 8 an, hilen delarik, Kauteresetako elizan, meza sainduaren emaiterat dohalarik, Jondoni-Martineko lanak ederki hasiak izanen ditu.

Gizon azkarra zen Hiriart Martin, otsoaren parekoa omen. Bainan, — beren indarren neurria ez dakiten gizon guziena da, — bere burua higatu zuen. Lau elizetako harat-

hunatak, uda ala negu, bethi oinez zeramatzan, orai izerdi trempan, sarri hotzak airean, iguzkiak iguzkiari, euriak-euriari : ez baita holakorik burdinaren beraren trenkatzeko.

***

Aiphatu dugu Landibarreko arnoak zer buru-hausteak Guillemarchand gaizoari eman ziozkan; gutik egin zuen Hiriart Martini ere ez baitzion bere uztarra sendi-arazi.

Gauzak, berritzearekin, hobeki joanen direla, bethidanikako ustekundea eta gizonaren lilluramendua. Hortakotz, erresuma bat pekoz-gora emaiten dutenek, beren-alde dituzte beharrak eta errumesak; eta bethi badira nahaskeria batetarik zerbait idurikatzen dutenak. 1848 ko otsailaren 24 ean, Paristarrek errege iraizi zuten eta Errepublika jarri. Berria orotarat hedatu zen, chimistaren pare, eta, agindua zaion « libertate »-ari, jendea loriatua zagon. Han-hemenka, gerthakari horren orhoitzapenetan, landatu ere zituzten zuhain batzu, « libertatearen zuhaitzak » deithu zituztenak; eta, asko lekhutan, zuhaitz horiek, ospe handitan, aphezeri benedikaarazi zituzten.

Nork bada zuen asmaturen Landibarre chokhoa bera asaldatu beharra zuela delako « libertate »-aren sukharrak? Bainan nehork uste ez dituenak, gerthatzen! Gau batez, — otsail ondarra bide zen edo ephail hastea, ez niakike chuchen, — gau batez arren, gosturik hoberenean lo zagoelarik gizon andana bat atherat joan zaion Hiriart aphezari. Jo eta jo, panpaka, erretora lotarik iratzar-arazi zuten : numbait, norbait eri tchar zitakeela, aphezak bi pautziz, hala-hala, athorra has, ohetik leihorat jo zuen.

Zer irri zafla, jakin zuelarik bere arthaldeko akher-marroetarik zombait han zituela; berehala, « libertatearen zuhaitza », benedikatu behar zaiela, jauts zadien oihuz Erdi trufa, erdi musika, erretorak ihardetsi zaien: zuhain landatzen artzeko baino lo egiteko ordu hobea zela. Bainan erran bazuen, erran, jazarri zitzaizkon gure gau-bele errepublikanoak..., eta nola?... baizik eta, gogotik ez bazuen, gogozgarai, galdatua eginen zaiela. Bai eta, heien izkirituek eta mehatchuek aphezñoari irriak sarthu! Egiaz, etzen gehiago trufarik, ezen, haimbestenarekin, gure putikoek, oldarrean, athea pusketan emaiten baitzuten eta, uholdearen pare, etchea betetzen.

Gauzak zertarat zohazin ikhusirik, izitua, harritua, Hiriart gaizoak leihotik jauzi egin zuen kamporat eta, gauak gauari, Churrutako aldaperi goiti lekhuak hustu. Bainan, bere

soineko arinarekin, apheza, Garakotcheko alhorretan barna, lauazka zohalarik, hartaz eta beren « libertatearen zuhaitzaz » gure errepublikano zintzoek etzuten achola handirik. Numbaitikako edalearen sudurra ! jo zuten sotorat : omenak zion eiki Arretchekoa zela ondo hotako sotorik heberena eta aberatsena, bere baitharik bezala, herriko arnorik gozoena aphez-etcherat zohala.

Egia othe zion bada omenak ?... Baditake ! Dena dela, huna zer gerthatu zen : goizalderat, argi chirrintan, aphezñoa, — zen bezain arinki emana, ikhusia izaiteko ez baitzuen gutiziarik, — gordeka etcherat itzuli zen eta bere putikoak kausitu zituen... mahainpean zurrungan. Erran gabe doha, firrindan, philtzar batzuen pare, kamporat eman zituela... ihitz-hotzak freska zitzala.

*
* *

Honoré Elissetche (1864-1879) Zibitztarrak, Hiriart Martin, Khamboarrak utzi saila jarraiki zuen : Behauneko sankrestia hunek egina da. Jondone-Martineko lanak aldiz iduri luke bazterrerat utzi zituela : alabainan sailak oro ezin batean ereman.

1879 an, Honoré Elissetche erretor Jutsuerat igorria izan zen jaun aphezpikuaren manuz.

Elissetchek Behaunetik lekhuak hustu zituelarik, norbaitek ederki atsegin hartu zuen : eta norbait hura zen Charles d'Eliceiry, Dominchaneko erretora. Aspaldian, beste irritsik etzuen d'Eliceiry jaunak baizik eta, lehenago, mendeak dituela, haren oseba aiphatuenetarik batek gidatu herriaren bazkatzea. Kargu handiagorik gutizia zezakeen, ja, bi aldiz, Jaun aphezpikuak eskainia zakon, behin, Donaphaleüko ikhastegian buruzagigoa, gero, Baiona-San-Luis-go etche handiaren gidatzea ; bainan haren amets bakharra zen Landibarreko erretor izaitea. Eta, beste askok ez duten zoriona, harek bere ametsa egiztatu : 1879 an, Behauneko erretorgoa ardietsi zuen.

Marc-Antoine zenaren odoletik bazuen Charles-ek, osebari zorrik ez duke ilobak. Bizkortasun handiko gizona, lan bat etzuen oraino bururatua, ja beste bat gogoan zuela. Dela Behauneko dela Jondone-Martineko prediku-alkhitik ardura diru-galdea aiphu zen ; egiaz, berak ere ausarki zeman, eta bere arbasoetarik zuen ondokotasunaren zathirik ederrena herriaren onetan du igorri. Sail gaitza bururatu du Landibarren : bi elizak handitu eta aphaindu, seroren etchea egin, erreboteak altchatu, gaintiarrer bide on bat za-

baldu.

Jondoni-Martineko aitoren-seme zaharren azken umeak, larderia bazuen, eta, bere zaldiaren gainean, herriko bidechkak iragaiten zituelarik, bat-bederak aithor zuen nausia zabilala menekoen begiesten. Traka hortako aphezeri ederki zioakete kalonjeen chingola gorria; Jaun aphezpikuari ere hala zaion iduritu eta, 1887 ko maiatzaren 27 an, Charles d'Eliceiry ohorezko kalonjeen lerrorat zuen altchatu.

Bizkitartean adinetan han-harat zohan gure kalonjea eta hiruetan-hogoi urthetako zango batzuentzat, Landibarreko harat-hunatak nekhechko dire : 1890 ko agorrilan, eman zioten bikari bat. Erretorak bikariari utzi zion Behauneko aphez-etchea eta joan zen, bera, Jondone-Martineko arbasoen jauregian bizitzerat.

Mendietako haitza ortziak baizik ez dezake aurthik; gizonen artean, Charles d'Eliceiry haitzaren iduriko zen. Holako gizonak elbartasunak detzazke bakharrik lurrera : tipustapastean, erretor suharra delako eritasunak jo zuen meza-sainduaren emaiten ari zelarik. Zombait urthez, halere, gaitzari berari ihardoki zion; bainan azkenean, gaitza nausitu : hil zen d'Eliceiry 1901 eko hazaroaren 24 an.

* * *

Nola egunak, hala erretorak : bata-bestearen ondotik, ez ordea bata-bestearen idurikoak. Eliceiry handikor bezain, Apphardoy eiki chehekor; bata haitzaren pareko, bestea kanaberaren iduriko. Askok, herrian, Remi deitzen zutena baino gizon mintza-erretchagorik ez bide da munduan, ez eta ere jaun lañoagorik. Behialako erretor auzilari ziberotarrak, ja aspaldian, ahantziak ez balire ere izan, Apphardoy-ek, bere maithagarriaz, heien omen hitsaren itzaltzekoa bazukeen.

Erretor chehe-lañoak bazituen, bizkitartean, bere handiostarzunak. Ihiztari errabiatua, — diote erretor berria Iholdy-tik Landibarrerat zizpa bizkarrean sarthu zela, — ez zezakeen onhar beste ihiztari batek harek baino balentria handiagorik ukhan zezan : loria omen baitzen hari beha egoitea ihiziaz solas zuelarik. Dena dela, eta hau, berak khondatzen ohi zituen balentriak bezain egia da, Remi gaizoak azken hatsa eman zuelako berria hedatu zelarik, Ipharlatzetik Laphazabalerat Landibarreko erbiek mutchikoak eman zituzten, erretor zenak bizirik utzi lapin bakharra ttunttunlari !

Zaldietan ere gostu gaitza zuen eta bere irritsa, eskualde guziko kabala begikoenaren

ukhaitea. Atsegin egin nahi zionak aski zion erraitea : « Norena da bada zaldi eder hori? » Bainan berearen goresteko, bestenen aphaltzea etzuen guphida eta Jaun Aphezpikuak ez bide du ahanztekoa behin, Oztibarre chokhoan, Apphardoy zenak bihurtu zion ahapaldia. Jakinik bere zaldiaz gogotik bazuela espantu erretor onak, galdatu zion zer zerasan harenetaz ;bai eta, ahoan koropilorik gabe, erretorak ihardetsi : « *De vieilles haridelles, Monseigneur, de vieilles haridelles!* »

Hain maite zuen Landibarreko lurrean dago Apphardoy ehortzia, zeru gainetik bide baitio oraino zombait behako gure chokhoari.

***

« Orhiko choria, Orhin lakhet »

dio erran zaharrak : Eskualduna ez othe dugu Eskual-Herrian gehiago lakhet? Mendetik-menderat, urthetik-urtherat, gure chokhoak husten ari zauzkigu. Duela ehun urthe, zortziehun egoiliarrez goiti bazituen Landibarrek, bederatzi ehun zombait eskas; mende batez kasik erditarat jina dugu. Eta bertsua ez othe da beste asko herritako goiti-beheitia.

Bizkitartean, iduri luke, hogoi-ta-hamar bat urthe hautan, bere heinaren idukitzerat dohala. 1836 etik, 1846 erat, herria, hamar urthez, hiruetan-hogoi-ta-hamahiru arimaz gutitu zen; 1901 etik, 1931 etarat, hogoi-ta-hamar urthez, hiruetan-hogoi-ta-hiru arima ditu galdu, anartean, nahiz gerla gerthatu den. Gaurgoitik, berriz goiti doha; Jainkoak eman dakiola oraino bizi eta ospe.

Atzo hala
Egun hola
Bihar, Jainkoak daki nola !

OSTOPETARRA.